



ANTTON IZAGIRRE ETA ONINTZA LASA ▶ NAZIO EZTABAIDA GUNEKO KIDEAK

«Nazio eraikuntzan, gure lanak ez ditu fruituak emango herria atzetik ez badago»


HITZALDIA ▶ Nazio Garapenerako Biltzarrean osaturiko Nazio Plana aurkeztuko dute bihar, Tolosan

ARDURAK ▶ NEGko Gipuzkoako ordezkari da Izagirre, eta Lasa Emakumeen batzordeko kide ▶ 4,5



Antton Izagirre eta Onintza Lasa, Tolosako udaletxean, HITZARI eskainitako elkarrizketan. I. TERRADILLOS

LEITZA ▶



J. ASTIBIA

**Igerilekua
zabalik da
atzotik**

Denboraldirako bonoak egiteko aukera dago ▶ 7

AMEZKETA ▶

**Iker Karrera
bosgarren
sailkatu da
Alacanten ▶ 6**

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶

Rekondo favorito izan arren, Otaegi gailendu zaio Urrezko Aizkolarian

23 urte azpikoetan jantzi du txapela; Rekondo «nerbio askorik gabe» aritu zen ▶ 3



Otaegi, ospatzen. J. URBE / A. PRESS

TOLOSALDEA ▶

Zuriarrainek irabazi du lehen sega kanporaketa

Joxe Gabirondo ere sailkatu da finalera ▶ 6



Andoni Zuriarrain amasarra. I. G.

TOLOSA ▶ ASIA

Udaren atarian, udaleku irekiak eta ludotekak eskualdean

Laskorain Ikastolak eta Galtzaundi Euskara Taldeak uztaierako hainbat ekintza prestatu dituzte gaztetxoentzat



Joan den urtean Laskorain Ikastolak antolatutako udaleku irekietako irudietako bat. HITZA

ESTI EZEIZA

Ikasturtea dagoeneko azken txanpara heldu da, eta udarako ekintzak antolatzen hasi dira dagoeneko ikastetxeak. Hone-la, eta euskara ardatz hartuta, ludotekak eta Udaleku irekiak antolatu dituzte, besteak beste, Laskorain Ikastolak eta Galtzaundi Euskara Taldeak. Uztaieran zehar, eskualdea ezagutzeko, jolasteko, nahiz ingelese ikasteko aukera izango dute bertan parte hartzen duten gaztetxoek.

IZEN-EMATEA ▶

LASKORAIN IKASTOLA

Lekua. Ikastolako idazkaritzan.
Informazio gehiago. 943 69 71 22 zenbakira deituta.

GALTZAUNDI EUSKARA TALDEA

Lekua. Galtzaundiren egoitzan (Nafarroa etorb., 6).
Epea. Hilaren 23a arte.
Informazio gehiago. 943 65 50 04 zenbakira deituta.

Laskorain Ikastolaren ludoteka. Euskaraz Bizi proiektuaren barruan, uztaieran zehar hainbat ekintza egingo dituzte haurrentzako. Hauen helburua «neska-mutilek euskaraz normaltasun osoz ongi pasatzea da». Horretarako, hainbat jardunaldi antolatu dituzte, hala nola, jolasak, eskulanak, festak... Eta astean behin irteera bat egingo dute egun osorako, egun-pasa horietan haurrek eskualdeko herri ezberdinak ezagutu dituzten.

Ludoteka, 09:00etatik 13:00-

etara egongo da irekita, eta jangela zerbitzua eskainiko dute gutxieneko taldea osatuz gero. Eskolaurretik hasi eta Lehen Hezkuntzako 2. maila bitartekoentzat zabaldua dago izen-ematea. Honez gain, helduagoek ere aukera izango dute udalekuan parte hartzeko. Lizarra, Iruñea eta Gasteizko ikastolekin batera, beste ekintza batzuk egingo baitituzte.

Bestalde, astean behin edo bitan, oraindik zehazteke badute ere, ingeleseko eskolak jasoko dituzte gaztetxoek, ikasturtean zehar ikasitakoa jokoen bitartez praktikan jarri ahal izateko. Interesatuak izen-ematea Laskorain Ikastolako idazkaritzan egin beharko dute.

Galtzaundi Euskara Taldearen Txilipurdika ludoteka.

Urtero bezala, Galtzaundi Euskara Taldeak Txilipurdika ludoteka antolatu du uztaieran 3tik 28ra bitarte Tolosako Kultur Etxean. Hauen helburua ere «neska-mutilek ondo pasatzea da, eta euskaraz normaltasun osoz jolastu ahal izatea». Horretarako, hainbat ekintza antolatu dituzte, hala nola, jolasak, eskulanak, festak, igeriketa, ipuin kontalaria, merienda... Honez gain, astean behin irteera bat egingo dute Ibarrara, Zuloaga Txikira... inguruko leku ezberdinak ezagutu dituzten.

Bestetik, hemen ere, astean behin edo bitan, ingeleseko klaseak ezango dituzte, ikasturtean zehar ikasitakoa joko bitartez praktikan jarri dezaten. Jardunaldi hauek 3 eta 10 urte bitarteko haurrentzat dira, eta 09:00etatik 13:30era izango dira. Izen-ematea Galtzaundiko egoitzan egin beharko da hilaren 23a baino lehen.

LEABURU-TXARAMA ▶

Telelaguntza hizpide, osasun jardunaldietan

Uli mankomunitateak antolatu, eta Kutxako ikasgelak sustatuta, osasunari buruzko beste jardunaldi bat izango da bihar. Arratsaldeko bostetatik aurrera, herritar guztientzat *Telelaguntza* izango da mintzagai Txaramako Kultur-osasun gunean. Jardunaldi hauen helburu nagusia «beharrean dauden adinekoek adituak diren pertsonak gertu izatea eta informazioa ematea» da.

LEABURU-TXARAMA ▶

Etxetik erosketak nola egin ikasteko mintegia, bihar

Bihar, 17:00etatik 19:00etara bitartean, *Etxetik eros ezazu* izenburupean, mintegia eskainiko du tutoreak Leaburuko KZgunean. Internet bidez erosketak nola egin erakutsiko dute bertan.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
 - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930
- ▶ **Garraioak.**
 - ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitza autobus.: 948 221015
 - ▶ Taxis: 670420
 - ▶ Taxis (Leitza): 608 873016
- ▶ **Besterik.**
 - ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurrumendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

TOLOSA ▶

Hirukidekoak, auzolanean

E. EZEIZA

Hirukide ikastetxeko DBHko ikasle guztiak joan den ostiralgoizean Tolosako Zumardi Handiko bazterrak garbitzen aritu ziren, auzolanean. Ekintza honekin ikasturtean zehar Tolosako eskolako Agenda 21en baitan burututakoari bukaera

iragarki laburrak ▶

BESTEAK

Txakurkumea. Arratoi zakurrak oparitzen dira. 618 25 49 71.

eman zioten. Helburu nagusia «herriarekiko konpromisoa sendotzea» izan zuten, «baita udal zerbitzuak sortzen dugun zabor guztia jasotzeko gauza ez direla hausnartzea ere, batik batik bazter izkutueta botatzen ditugunak». Ikasleak «harritu» egin ziren horrelako toki eder batean zenbat zabor bil daitekeen ikusitakoan: freskagarri latak, plastiko mordo bat, frigorifiko bat, autoen paratxoak... «Gustura ibili ziren zabor bilketan, eta lan hauek egitearen beharraz konturatu ziren». Guztira, 500 bat kilo zabor jaso zituzten goiz osoan zehar. HITZA



Hirukideko ikasleak, ibai ertza garbitzen. HITZA

AIZKORA ▶

IMANOL GARCIA

Ez ziren iragarpenak bete. Jo-seba Otaegi zizurkildarra gailendu zitzaion Jon Rekondo leitzar faboritoari. 23 urtez azpiko Urrezko Aizkolarien txapela zuten jokoan biek Azpeitian jokatutako norgehiagokan. Horrelakoetan, egun ona duenak abantaila izaten du. Otaegik horrela esan zion HITZARI: «60 ontzakoan adarra atera zitzaidan, baina parean bukatu nuen proba hori eta hor ikusi nuen aukerak nituela irabazteko. Ez nuen ezer galtzeko eta jokoan sartu nintzen». Laugarren proban indar gehiago erakutsi zuten zizurkildarrak eta hor bereganatu zuten txapela.

Leitzarrak, berriz, bere lana ez zuten «oso gustura egin, baina gaizki ere ez. Ez nintzen nerbio askorekin aritu». Faboritoaren alde hasi zen lehiaketa, lehenengo proba bereganatu baitzuen. Enborra kolpe gutxiengatik emanez moztea zen helburua. «Mantxo ibili nintzen eta ondo asmatu nituen kolpeak», zioen Rekondok. Bigarren proban, abiadurakoan, Otaegik segundo batengatik irabazi zuen. Hirugarrenean, Otaegiren adarra tarteko, segundo gutxiengatik irabazi zuen leitzarrak. Norghehiakoren emaitza irekia zegoen eta laugarrenean erabaki zen. Otaegi konfiantzarekin zegoen eta «jenioarekin» aritu zen eta txapela lortu zuen.

Bi aizkolari gazteek beste erronka batzuk dituzte orain etorkizun hurbilean. Otaegi Gipuzkoako bigarren mailakoan eta Euskal Herriko hirugarren mailakoan ariko da. Rekondo, berriz, Euskal Herriko bigarren mailakoan. Hala ere, agian ikusiko dira elkar udan zehar egingo dituzten hainbat erakustaldietan.

Otaegik lortu du garaipena Rekondo faborito zen finalean

Zizurkildarrak jantzi du 23 urte azpiko Urrezko Aizkolariako txapela; leitzarra «nerbio askorik gabe» aritu zen Azpeitian



Zizurkilgo San Isidro eguneko erakustaldiaren antzekoak egingo dituzte Otaegik eta Rekondok udan ere. i. g.

EZBEHARRA ▶

Bi tolosar zaurituta N-1eko istripuan, Iruran

Iruran atzo arratsaldean N-1 errepidean gertatutako istripuan bi emakume tolosar zauritu ziren. M.A.L.Z., 40 urtekoa, eta A.A.A., 33 urtekoa, Donostia Ospitalera eraman zituzten. Bi kamioiren eta bi autoren arteko istripua izan zen. Beste bi gidariak, gizonetakoak biak —bat Orkoien-goa (Nafarroa); Ertzaintzak ez zuten bestearen helbiderik—, Asuncion Ospitalera eraman zituzten. Ezbeharrak sei kilometroko auto-ilarak sortu zituen.

ANOETA ▶

Mahai inguruan biltzeko zerrendak Itzuli tabernan

Herriaren Borondatearen Aldeko Festen antolatzaileek gogorarazi dute afari eta bazkarietarako izen-emate zerrendak Itzuli tabernan daudela. Bihar amaituko da bertan izena emateko epea.

ZIZURKIL ▶

Elbarrenako festetako kartel lehiaketa abian

Elbarrenako festetako kartel lehiaketan parte hartzeko epea hilaren 30an amaituko da. Lanak DIN A4 tamainakoak, lau koloretara eta teknika librean izan behar dute. Ondorengo testua ere jarri behar du: «Zizurkilgo Jaia 2006, Irailak 7-8-9-10-11».

iragarki laburrak ▶



Abaltzisketa. Oso tamaina politeko baserria salgai.
Alegia. Taberna alokairuan, informazio pertsonala.
Alkiza. Eraikuntza berriko etxe bifamiliarra salgai. 4 solairu. Oso bista onak.
Amezket. 2 logela, egongela, sukualdea eta bainugela. Oso egoera onean. Nahiko eraikuntza berria. Berokuntza, trasteleku eta igogailuarekin.

Amezket. Etxe abikia salgai.
Anoeta. San Joan. Eraikuntza nahiko berriko duplexa. Garaje ibitiarekin.
Anoeta. Marban dagoen taberna-jatebidea alokairuan. Informazio pertsonala.
Areso. Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeko partzela salgai.
Belautza. Eraikuntza berriko etxe bifamiliarra. 462.780 euro.
Gabiria. Paraje ederrean, eraikuntza berriko etxe bifamiliarra.
Hernalde. Etxe bifamiliar ederra salmantan. Eraikuntza nahiko berria.
Ibarra. Etxe adosatua salmantan. Oso egoera onean.
Ibarra. Garaje ibi eta irekiak salgai.
Ibarra. San Inazio auzoa. Hiru logela, egongela, sukualdea eta bainugela. 228.385 euro.
Ibarra. Euskalerrira kalea.

Oso egoera onean. 3 logela, egongela, sukualdea eta bainugela. Berokuntzarekin.
Ibarra. 2 logela, egongela, sukualdea, bainugela. Dena kanpoaldera. Berokuntzarekin. Bizitzera sartzeko moduan. 210.355 euro.
Ikaztegieta. Eraikuntza nahiko berriko 170 m²ko duplexa.
Tolosa. Erdialdean, eraikuntza berriko etxebizitza. 3 eta 4 logelek. Terrazak. Sukalde ekipatuak. Garajeekin.
Tolosa. Alde Zaharrean hainbat etxebizitza salgai 168.285 eurotik aurrera.
Tolosa. San Esteban. 2 logela, egongela, sukualdea, bainugela. Sartzeko moduan. 198.335 euro.
Tolosa. Santa Klara, berrituriko etxebizitza, 2 logelek.

Tolosa. Belate, 3 logela, sukualde-egongela, bainugela. 264.450 euro.
Tolosa. Zumalakarregi. 165 m²-ko etxebizitza salmantan. Trastelekuarekin.
Tolosa. Zumalakarregi. 2 etxebizitza. 92 eta 97 m². 2 eta 3 logela, sukualde-egongela, 2 bainugela. Oso bista ederrak. Guztiz berritua. Estreinatzeke.
Tolosa. Araba etorbidea, 4 logela, egongela, sukualdea, 2 bainugela. 25 m²-ko trasteleku eta garajea.
Tolosa. Trinkete. 3 logela, sukualdea, egongela, bainugela. Trasteleku eta garaje ibitia.
Tolosa. Alliri, eraikuntza berria. Diseinuzko etxebizitza terrazarekin.
Tolosa. San Frantzisko Ibilbidean 120m²-ko eraikuntza berriko etxebizitza salgai.

Tolosa. Pablo Gorosabel. Taberna alokairuan.
Tolosa. Araba Etorbidea. Garajea alokairuan.
Tolosa. Pablo Gorosabel. 40m²-ko bulegoa alokairuan.
Tolosa. Usabai. 2.000 m²-ko pabiloi industrialak alokairuan.
Tolosa. Guadalupe. Pabilioia, 228 m² beheko aldean eta 148 m² goikaldean. Prezio interesgarria!
Zizurkil. Etxe abikia salmantan oso egoera onean.
Zizurkil. Etxe bifamiliar ederra salgai. 4 solairu.
Villabona. 3 logela, sukualdea, egongela eta bainugela. Balkoi ederra. Dena kanpoaldera. Etxebizitza erabateko obra behar du. Eraikuntza guztiz berritua dago eta igogailu du.

ORENDAIN ▶ KIROLA

Sega Txapelketako finalera Zuriarrain eta Gabirondo pasatu dira

Gipuzkoako lehenengo finalerdian aritutako hiru segalariek batez beste 1.311 kilo moztu zituzten, hiru zigor ere izanik



Andoni Zuriarrainek txukun moztu zuen belarra, eta ez zuen penalizaziorik jaso. HITZA

NEREA URBIZU

Orendainen izan zen herenegun Gipuzkoako Sega Txapelketako lehen finalerdia, eta horretan Amasak Andoni Zuriarrainek lortu zuen garaipena.

18:00etan hasi zen proba; 30 minutuz belarra moztu behar izan zuten, eta kilo gehien lortzen zituenak irabazi egiten zuten. Kilo gehien pilatzen zituzten lehenengo biek lortzen zuten Gipuzkoako finalera pasatzera, eta Andoni Zuriarrain amasarrak eta Joxe Gabirondo gazteluarrak lortu zuten.

1.338 kilo belar moztu zituen Zuriarrainek. Gabirondok 9

kilo gehiago lortu zituen, baina bi zigor jaso zituenez, 40 kilo gutxiago kontatu zizkioten: 1.327 kilo, denera. Hirugarrenak, Andoni Goikoetxea gazteluarrak, 1.289 kilo moztu zituen, berak ere penalizazio bat izanik.

Hurrengo finalerdia igandean egingo da, 18:00etan, Zizurkilen. Bertan Mikel Aranalde gazteluarra, Andoni Dorronso-oro ikaztegiarra eta Mikel Alkorta asteasuarra izango dira.

Zuriarrainek ez zuen espero irabaztea. «Alde batetik, desanimatuta joan nintzelako, eta fisikoki ere ez nuen neure gorputza prest eta osoa ikusten».

Bere esanetan, «neukan guztia eman nuen, eta finalean ere hala egingo dut. Gainera, gogoz nago orain, konfiantza hartu dut berriro».

Gipuzkoako final handia hilaren 25ean jokatuko dute. Oartzungo Pikoketan. Ordubetez moztu beharko dute.

Euskadiko Txapelketa

Euskadiko Txapelketa larunbatean izango da Gasteizen, Zuazo de Vitorian, zehazki. Han izango da Zuriarrain ere, Jon Lapazaran, Migel Angel Goioaga eta Dabid Marifelarenarekin batera.

AMEZKETA ▶ MENDIA



Iker Karrera mendi lasterkaria, arxiboko irudian. OLAIA ESKITXABEL

Iker Karrerak Alacanten zazpigarren egin du

Espainiako Txapelketako bigarren proba «gogorrean» madrildarrak nagusitu dira

N. URBIZU

Asteburu honetan mendi lasterkarien Euskal Selektzioa Alacanten (Herrialde Katalanak) egon da. Espainiako Txapelketako bigarren proba jokatuz, eta Iker Karrera amezketarrak 7. egin zuen, bost ordu eta bi minutuetan. Raul Garcia madrildarrak irabazi zuen proba, eta 9 minutu atera zizkion Fernando Garcinari. Azken honek Aizkorri irabazi du noiz edo noiz.

«Nahiko ondo prestatuta» joan zen Karrera lasterkaria, bere esanetan. «Oso-oso gogorra» izan omen zen proba, gorabeheren aldetik normaltasunaren barrukoa, baina ez teknikoki begiratuta: «Kareharrizko mendia zen, sasi asko zegoen, lurlean hankak bihurritzeko harri asko zeuden, eta erortzeko arrisku handia zegoen.»

Horrez gain, tenperatura altuak izan ziren: 30 gradutik gora egin zuen. «Euskal Se-

lekzioan gaudenok ez dugu baldintza horietan korrika egiteko ohitura, eta hori nabaritu egin da. Kataluniarrak eta madrildarrak eginago daude horretara, eta hori emaitzan ikusi da».

Iker Karrerak txorkatila bat minduta dauka, bihurritu egin baitzuen ia. Beste hiru euskaldun ere gaizki samar ibili ziren, «txorkatila bihurritu zuen batek eta beste bati bero kolpeak eman zion. Hala ere, proba amaitzea lortu zuten». Neska batek ere hanka bihurritu zuen.

Hirugarren proba uztailaren 16an izango da, Bergan (Katalunia), eta korrikalarien arabera. «Pirinioetan izanda, tenperaturak jasangarriak izango dira. Ez dut aste hereneguneko proba bezain zaila izango denik, benetan, izugarri gogorra izan baitzen: Aizkorrikoa baino gogorragoa izan zen». Bestetik, Espainiako Kopan bosgarren lekuan da amezketarra.

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.: 616 93 17 88



Ibarra. Aukera! Egongela, sukaldea, 3 logela eta bainugela dituen etxebizitza ederra. Ezin hobea. 41.700.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Andoain. Altua, igogailuarekin. Egongela, sukaldea, 2 logela eta bainugela. Erabat eraberritua. Trastelekua. Oso inguru onean. 44.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Andoain. Egongela, sukaldea, 3 logela eta bainugela. Sartzeko moduan. Berogailua. Kanpoaldera. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Tolosa. Egongela, sukaldea, 3 logela eta bainugela.

Egoera ona. Oso eguzkitsua. 44.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Tolosa. 160 m2. Egongela, sukaldea, 3 logela eta 3 bainugela. Garajea. Terraza. Berria. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Tolosa. Egongela, sukaldea, 3 logela eta bi bainugela. Egoera onean. Igogailua. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Villabona. Egongela, sukaldea, 2 logela eta bainugela. Sartzeko prest. 35.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Zizurkil. Eraikuntza berriko etxe ederra. Informa zaitetz! Etxesagasti. 943 69 68 56.

IKAZTEGIETA ▶

Lo egoki egiten ikasteko hitzaldia izango da

Etzi, osteguna, 17:00etan, Kuttak antolatutako hitzaldia egongo da Ikaztegieta liburategian. Jorratuko duten gaia *Loa: adineko pertsonen ondo lo egin beharra* izango da. Jardunaldi honen helburua ondo lo egiteak duen garrantzia informatzea eta ondo lo egiten irakastea da, atsedernaldi atsegina lortzeko jarraibidea erakutsiz.

PILOTA ▶

Jubenilen eta kadeteen HITZA finalderdiko lehiak

Gaur, 19:30ean, HITZA Pilota Txapelketako jubenilen finalerdia jokatuko dira Beotibarren. Lehen partidari Garrantza-Beroiz eta Yoldi-Linzoain ariko dira. Ondoren, Iturrioz-Telletea Ojuel-K. Galarragarrekin. Bidanien bihurtu izango dira kadeteak, eskuz banaka. 19:00etan, Urrutia Goienetxeren aurka, eta Iraola Galartza- ren kontra izango dira.

LEITZA ▶ AISIA

Igerilekua irekita dago atzodanik

Denboraldirako bono desberdinak egiteko aukera eskaini dute

JAIONE ASTIBIA

Atzo berean ireki zuten Leitzako igerilekua, «azken egun hauetan egiten ari den beroa baliatzeko». Beste urtetan baino lehentxeago ireki dute: «Normalean hilaren erdialdetik aurrera irekitzen da, baina umeak ere goizetik bakarria hasiak dira eskolan, arratsaldeak libre dituzte eta, gainera, eguraldia ere oso beroa dagoenez, jendea noiz ireki behar ote genuen galdezka zegoen eta egun batzuegatik, irekitzedata aurreratzea erabaki dugu», azaldu zuten igerileku-

ko arduradunek. Azken hilabeteetan prestakuntzekin aritu dira, «lehen losak zeuden lekuan belarra erein genuen eta horri erreparatu aritu gara. Ureztapenerako Txaragorriko ura ekarri dugu», zehaztu dute. Bestelako lanak ere egin dituzte. Batez ere «baso handian, horma guztiak maila berean jartzeko lanak egin dira», adierazi dute.

Horrela, iraila arte, egunero irekiko dute igerilekua; goizetik arratsaldera, 11:00etatik 20:00etarako ordutegiarekin. Jakinarazi dutenez, baina, «umeei oporrak hartu arte,



Atzo ireki zuten bezala sartu ziren uretara ausartenak. J. ASTIBIA

arratsaldez bakarria» irekiko omen dute; 15:00etatik aurrera.

Hilean behin gauaz

Bestalde, bertako arduradunek HITZARI aitatu diotenez, aurten berrikuntza bat ere izanen omen da: Prebentzio Programako teknikariarekin elkarlanean, «egitasmo berezi samarra» egitekoak dira; alegia, «hilean behin edo, larunbat gauean igerilekua irekitzekotan gara. Proba modura,

bestelako eskaintza bat», azaldu dute.

Gainerakoan, «tabernan otartekoak eta plater konbinatuak eskainiko ditugu, amaken alokera, uztailean igeriketa ikastaroak...». Igerilekuko zerbitzuarengatik eguneroko txartela har dezakete erabil-tzaileek; adinaren ariorako prezioak izanik. 10 eguneko bonoak ere eskura daitezke. Ordain-sari hauetan, kiroldegiko bazkide direnek merkeago dituzte sarrerak. Kiroldegian hartu behar dira bonoak.

SARRERAK ▶

Bazkideentzat dira aurreneko prezio horiek.

URTEKO BONOAK

5-13 urte. 16,50 euro (20,60 euro).

14-17 urte. 25,80 euro (31 euro).

18-64 urte. 48,60 euro (55,80 euro).

65 urtetik gorakoek edota ezinduek. 16,50 euro (20,60 euro).

Familiako txartela. 103 euro (113,60 euro).

EGUNEROKO SARRERA

5-13 urte. 1,75 euro (1,95 euro). Jaietan: 2,40 euro (2,70 euro).

14-17 urte. 3,10 euro (3,30 euro). Jaietan: 3,60 euro (3,90 euro).

18-64 urte. 3,60 euro (3,90 euro). Jaietan: 4,90 euro (5,20 euro).

65 urtetik gora. 1,75 euro (1,95 euro). Jaietan: 2,40 euro (2,70 euro).

10 eguneko bonoak. 28,50 euro (31 euro).

LEITZA ▶ FUTBOLA

«2-1ekoarekin irabazitako partida egonezinagatik galdu egin genuen»

Mendirekin 2-2 eginda, Aurrerak emaitza hori berdindu beharra du

J. ASTIBIA

«Irabazita geneukan partida galdu egin genuen. Gure onetik atera ginen eta...». Aurrera futbol taldeko ordezkariak halaxe laburbildu diote HITZARI here-negun arratsaldean Arkixkilen Mendiren aurka jokatu zuten igoera faseko etorrerako partida.

Giroa bero zegoen; eguraldiari zegokionez ez ezik, baita jokoa zegoena zegoelako ere:

igoerako azken bi partiduak jokatzen ari baitira Nafarroako Lurraldekakoan Aurrera eta Mendi. Bietako bat igoko da. Eta horrelakoetan, futbol jokoa adina eragin du lasaitasunak ere, baina «ezin egona garesti ordaindu dugu», esan dute.

Partida hasi eta 10 minuturako, epaileak Aurreraren aurkako penaltia adierazi bazuen ere, Antton Abruzza atezainak gelditu egin zuen eta aurre-

rantz egin zuen taldeak eta joko maila igoz, gainera. Halaxe etorri ziren Arangoak De Karlosen erdiraketaz baliatuz sartutako 1-0koa eta Iker Bengoetxek falta jaurtiketaz egindako 2-0koa.

Aldeko markagailu oso ona lortuta atsedenerako bidea hartzear zeudela, ordea, «Mendiko jokalarik batek gure defentsako Urriagak jo balu bezala plantak egin zituen», kontatu dute, eta ondorioz epaileak

kanporatu egin zuen, Leitzako taldea jokalarik bat gutxiagorekin utziz. Jokaldi honetatik etorri zen Mendiren aurreko gola. Baina, hala ere, 2-1ekoa «ez zen batere txarra».

Bederatzi jokalarirekin

Bigarren zatia zakarra izan zen. Mendiko zenbait jokalarik jokabide itsusi askoak egin zituzten; partidako epailea, berriz, ez zen zuzen aritu, behin eta berriz leitzarren aurka jotzen baitzuen ziztua; eta «hornerbioak galdu genituen», adierazi dute jokalarik leitzarrek. Hala zebiltzela, Aurrerako Alvarezki falta egin zioten hainbat garrenean eta honek zutitu eta faltagilea kolpatu zuen. Zuzenean kanporatu zuen epaile-

ak. Aurrera 9 jokalarirekin gelditu zen. Aurrekoan bezala, jokaldi honetan iritsi zen Mendiren berdinketako gola. Hala ere, Aurrerak gol-aukerak sortzea lortu zuen, bukaerarako 10 minutu falta zirela langara botatuko bat tartean. Azkenik, binako berdineketarekin bukatu zen Mendiren aurkako etorrerakoa.

Emaitza horrekin, lanak zail bai, baina ezinezko ez zaizkio jarri Aurrerari. Joanera partida hori dago larunbatean.

Jakitera eman dutenez, gainera, Mendigorriari joateko autobusa antolatuko dute zale-tuentzat. Hor joan nahi izanez gero, bihar arteko epean izena ematea eskatu dute, Maimur liburudendan, Gazta tabernan eta Gaztetxo goxoki dendan.

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

Telf.: 943 65 56 95

19:00ak arte hartzen dira

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo

hilberria ▶

Maribi Dorronsoro Otamendi

(Alazne lankidearen ahizpa)



Arnasa bizitza da.
Bizitza eten da,
baina zure arnasa ez da eten,
inguruan zabalduz dirau

Zumadi Eskolako guraso, ikasle eta irakasleak

AMEZKETA, 2006ko ekainaren 13a

Harpidedunei banatua ▶ 2006ko ekainaren 13a, asteartea ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA



goizez arratsaldez



beroena 20 hotzera 18

BIHARKO EGURALDIA



goizez arratsaldez

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

Gipuzkoako Foru Aldundia
Eusko Jauriaritza, Kultura Saila

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Tolosa. Baigorri-Bidarrai mendi irteera antolatu du Alpino Uzturrek iganderako. Lauordena mendia igoko dute. 6 orduko ibilaldia da. Izen-ematea, elkartean (Gudari 5, 943 65 27 89).
Tolosa. Txinparta elkarteak Felix Yarzaren omenezko II. Pintura Lehiaketa antolatu du, 750. urteurrena gaia ardatz. Lanak hilaren 14tik 16ra bitarte entregatu beharko dira elkartean bertan, 19:00etatik 21:00etara.
Tolosaldea. Galtzaundi Euskara Taldeak autobusak antolatu ditu hilaren 18an Armentian izango den Araba Euskaraz-era joateko. Izen-ematea, egoitzan (Nafarroa etorbidea, 6).

ERAKUSKETAK

Alegia. Maite Itsasoren margolanak. Hilaren 21a arte ikusgai, Jubilatuen tabernan.
Hernalde. Gregorio Lopezen margolanak, Ostatuan ikusgai.
Ibarra. *Mundu bete kolore.* Angel Cuervo abenturazale tolosarraren argazki erakusketa. Ostirala bitarte, Benito Izagirre kultur etxean.
Tolosa. *Aterpeak.* Miguel Angel Oriberen eskultura erakusketa. Uztailaren 1a arte bisita daiteke, Aranburu Jauregian.
Tolosa. Jesus Lopez Zulueta margolanak. Hilabete osoan, Saikin tabernan.
Zizurkil. Eskultura erakusketa, Olentzon.

HITZALDIAK

Tolosa. Nazio Garapenerako Biltzarren mintegi irekia.



Flemingo ikasleen antzezlanak gaur Gurean

VILLABONA ▶ Ikasturtearen bukaera iritsi da eta, harekin batera, Fleming ikastetxeko 1. eta 2. mailako haurrek beraien antzerki emanaldiak eskaintzeko garaia. Idokia eta Julia monitoreekin ari-

tu dira kurtsoan zehar antzezlan horiek prestatzen, eta gaur igoko dira Gureako taula gainera, gurasoei ikasitakoa erakusteko. 16:30ean hasiko da saioa. Irudian, izako emanaldia. HITZA

AGURRAK ▶



ZORIONAK

Joxemari eta Gemma (1981-06-13 / 2006-06-13). Zorionak zuen zilarrezko ezteietan. Muxu bat amona Joxepi, Juanen eta Aitziberren partetik.



ZORIONAK

Imanol Calderon Santin. 5 urte. Zorionak, Pottoko!! Ebekeon partetik.



URTE ASKOAN

Arantza (Izaskun, Ibarra). Zorionak, amabito, eta ondo pasa gaurko egun handi hau. Muxu handi bat Amarr, Iraitz, ebekeak eta Ugaitz.

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza
agurren tartea

Bihar, 19:30ean, udalbatzar aretoan.
Txarama. Telelaguntzari buruzko hitzaldia. Bihar, 17:00etan, Txaramako Kultur-osasun gunean.

JAIAK

Anoeta. Udalaren egitaraua, bihar: 18:45ean, Kukuaren etorrera iragarriko dute txalapartariak; 19:00etan, jaien hasiera iragarten duen txupinazioa plazan: Kukuaren jaitziera kanpai hotsekin eta ume eta gazteboen danborrada, Lagunak txarangarekin; 19:15ean, sardina jatea; 23:00etan, Jauregi eta Oihana trikitilariak plazan. Herri Borondatearen Aldeko Jaiak, bihar: 18:30ean, jaien hasiera txupinazio eta pregoiarekin; 19:00etan, kontzertazioa *PNV/EA: hiru urte anoetarron eskubideak urratzen. Konponbidea orain lelopean; ondoren, trikipotea; 23:00etan, herriko trikitilarien erromeria.*

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.
Tolosa. Tolosa, M. I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

IRRATIA

Txolarre irratria (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren erreposaoa, elkarrizketak, albisteak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-19:00. *Adi Guri*.
21:00-22:00. *Zaharrak berri*.
22:00-23:00. *Street noise*.

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

hitza Harpidedunen txokoa

Aisialdi planik ez duzula? HITZAK aukera paregabea emango dizu

1 Bidaia zoragarri bat Tenerifera 2 lagunentzat
2 Luxuzko otordu berezia Tolosako Zumeta Jatetxean

Ez galdu aukera! Egin zaitetz harpidedun ordaintzaile!

PARTE HARTZEKO:
Maiatzaren 30etik ekainaren 25era argitaratzen diren boko hauetako bat, zure datuekin bete eta bidali ondoko helbide honetara. **Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza • Araba etorb. 5 • TOLOSA**
Ekainaren 26an irabazlearen izena HITZAn **ZORTE ON!**

1 TENERIFERA BIDAIA
2 lagunentzat astebeteko egonaldia

2 OTORDU EDERRA
2 lagunentzako Tolosako Zumeta jatetxean

LAUTREK bidaia agentzia
korreo kalea, 52 • TOLOSA
Tel.: 943 67 39 99 - 943 67 39 21
Faxa: 943 67 39 12
zure neurritako bidaliak antolatzen ditugu

bete zure datuak
Harpidedunaren kodea.....
Izena.....
Abizenak.....
Helbidea.....
.....
Herria.....P.K.....
Telefona.....
Pe.lektronikoa.....

Zozketan parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ordaintzailea izatea.